Metodoari dagokionez, itzulpenaren oinarritzko testua itzulpen-teknikariak landu dute (arazoak hizkera tekniko edo arruntekoak diren bereiziz, arazo arruntak konponduz, zalantzak planteatuz...). Hizkera teknikoko arazoak eta testuaren zehaztasuna aztertzeke garaian sartu da legelarien lantaldea, Konstituzio Zuzenbideko irakasleak zirela koordinatzaile. Legelarien beren arteko adostasuna lortzea sarritan ez da egiteko erraza izan. Halere, alderdi horrek argudioetan sakontzea eskatu du, eta azkenean harturiko erabakiaren sendotasuna nabarmenago gelditu da. Azken finean, diziplinar-tekniko metodo erreflexibo honek emaitza hobetu duela uste dugu.

Donostian, 2006ko martxoan.

Juan Inazio UGARTEMENDIA EZEIZABARRENA
Maite ZELAIA GARAGARZA
Lantaldearen arduradunak

Jasone URKOLA IRIARTE
Euskara-dekanordea

Konstituzioa berriro?

Badira lehendik ere eginak 1978ko Espainiako Konstituzioaren euskarazko itzulpen bat baino gehiago, eta argitaraturik daude haietatik bi: 1978an bertan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, eta 25. urtemuga zela-eta 2003an egindako egokitzapena¹. Eta, bi bertsio horiek izanik ere, beste bat egin dugu itzultzaileen eta Euskal Herriko Unibertsitateko zuzenbide-irakasleen artean, hainbat lege-testu itzultzeko proiektu baten lehenbiziko pauso gisa.

Zuzenbideko testu oinarriko bezain itzaltsua izanik Konstituzioa, ardua berezia izan dugu zehaztasuna zaintzen. Dударik gabe, ahalik eta itzulpenik literalena egitea eskatzen du horrelako testu batek, jatorrizkoak dioen huraxe eta ez besterik uler dezan irakurle eta erabiltzaileak. Baina, literaltasun hori erdietsi nahian, gure ahaleginik handiena ez da izan hitza hitzarekin ordaintzea; formari leial izatea baino gehiago, zentzuari leial izatea bilatu dugu. Hitzen gehiegizko morrontzan erori gabe, ideiak doi eta argi eman.

Testu-oinarria prestatutakoan, orduak eta orduak eman ditugu, lantaldean, hura puntuz puntu aztertzen eta adostasuna iritsi arte moldatzen. Gaian aditua ez den batek prestatu du testu-oinarria, Euskara Zerbitzuak begiratu du hizkuntza-kalitatea, eta gaian aditu direnek onespena eman arte ez dugu itxi artikulua bakar bat ere. Ahal zuen neurrian eutsi dio bakoitzak bereari, eta behar zen neurrian amore eman. Ezin, bestela, testurik ondu. Puntu batzuetan, aitortu beharra dago, hartutako erabakia ez da guztion gogobetegarri izan: hori gertatu da, esaterako, *suspender-suspensión* hitzekin, lexikoaz eta terminologiaz hitz egitean azalduko dugun moduan.

¹ http://www.ivap.euskadi.net/r61-039/eu/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/konstituzioa.html

Ia 30 urte izanik, zaharkiturik gelditua zen testu honen euskarazko lehen moldapena alde askotatik; ez bakarrik euskara batuaren ikuspegitik. Arlo guztietan bezala, hizkera juridiko-administratiboan ere bidea egin du euskarak urteotan, normalizaziorantz; bai hiztegi orokorrean, bai terminologian, bai fra-seologian, eta bai —zergatik ez esan— syntaxian ere, eragozpenak eragozpen eta zailtasunak zailtasun. Benetako zuzenbide-testu sinesgarriak egiteko garaian sartuak garela esan dezakegu, eta testugileak ezinbestean bilatu behar du sinesgarritasun hori, hala zehaztasunean nola estiloan eta ulergarritasunean. Ikus ditzagun zertzelada batzuk.

1. Estiloa

Konstituzio bat ez da azalpen-testu arrunt bat, erregistro arruntean idatzia: maila jasoakoa da. Euskaraz ere, nahiz eta itzulpenean esanahiaren alderdiari gehiago begiratu formaren alderdiari baino, neurri batean bederen antzeman behar da testu lau-lauaz bestelako ukitu bat.

- Adibide bat ematearren, *debeke da* esapidea hobetsi dugu *debekeatuta dago* esapidearen aldean. Uste dugu adibide horrek berak erakuts dezakeela zergatik eta nola egin ditugun halako hautuak: egunerokoan hala esaten ez badugu ere, maila bateko euskarari ongi errotua da adierazpide hori, eta aldi berean erraz ulertzen da.
- Antzeko zerbait esan dezakegu *orobat* lokailuz; aise gehiago erabili dugu *bai eta ... ere* baino. Gainera, syntaxiaren aldetik ere joko ematen du; koma artean ez ezik, galdegai posizioan ere baliatu dugu:

(118) Nahitaezkoa da epaileen eta auzitegien epai eta gainerako ebazpen irmoak betetzea eta, **orobat**, haiek eskatutako laguntza ematea, prozesuan zehar eta ebatzitakoa exekutatzearan.

(53.3) Azken errekurtsio hori **orobat** aplika dakioke 30. artikuluan aitortutako kontzientzia-eragozpenetarako eskubideari.

- Ahalerazko aditz ugari ageri da konstituzio-testuan, baiezka eta ezezka: *podrán, no podrán...* Baiezkotetan, *ahal izan ez ezik, esku izan* esapidea ere erabili dugu; ezezkoetan, nagusiki *ezin jasoko dute* ereduari jarraitu gaitzaizkio.

(4.2) Estatutuek **esku izango dute** autonomia-erkidegoen bandera eta ikur propioak aintzatesteko.

(87.2) Autonomia-erkidegoetako legebiltzarrek **esku izango dute** Gobernuari eskatzeko lege-proiektu bat onar dezan...

(15) Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori **ezin pairaraziko zaio**, ezein kasutan, ez torturarik, ez giza-tasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo traturik.

—Aurreko adibidean ageri denez, *ezein* hitza erabili dugu, testu arruntago batean *inoiz* edo *inola* sar bazitekeen ere:

(24.1) Pertsona guztiek eskubidea dute epaileek eta auzitegiek benetan babes eman diezaieten beren eskubide eta interes legitimoen erabileran, eta **ezein kasutan** ezin gertatuko da defentsa-gabeziarik.

Todas las personas tienen derecho a obtener la tutela efectiva de los jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intereses legítimos, sin que, en ningún caso, pueda producirse indefensión.

2. Sintaxia

—Ahalegin berezia egin dugu esaldiak arin antolatzeko: aditza lehenbailehen jarri, subjektua eta aditza ahalik eta hurbilen eman, eten handirik ez egin...

(7) Langile-sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak lagungarri dira dagozkien interes ekonomiko eta sozialak babesteko eta sustatzeko.

Los sindicatos de trabajadores y las asociaciones empresariales contribuyen a la defensa y promoción de los intereses económicos y sociales que les son propios.

(9.2) Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen (...).

Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas (...).

—Gaztelaniazko esaldiaren egiturak asko laguntzen ez zuenean ere, irizpide horiei jarraitu diegu, puntuazioa ere sintaxiaren zerbitzura jarritz:

(143.1) Konstituzioaren 2. artikuluan aitortutako autonomia-eskubidea erabiliz, **autogobernura iritsi eta autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira**: historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri erkideak dituzten probintzia mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probin-

tziak. Hartarako, Titulu honek eta kasuan kasuko autonomia-estatutuek diotenak agintzen du.

Esaldiaren muin hori askoz atzerago dago gaztelaniazko testuan:

En el ejercicio del derecho a la autonomía reconocido en el artículo 2 de la Constitución, las provincias limítrofes con características históricas, culturales y económicas comunes, los territorios insulares y las provincias con entidad regional histórica podrán acceder a su autogobierno y constituirse en Comunidades Autónomas con arreglo a lo previsto en este Título y en los respectivos Estatutos.

- Esaldiak arin antolatzea ez da erraza gertatzen askotan, jakina: nahitaez hari luze samarrean eman beharrekoak badira tartean. Halakoetan ere, antolatzaileak eta loturak baliatuz saiatu gara elementuak egoki antolatzeko, ulergarri gerta zitezen halako esaldiak ere.

(155.1) **Baldin eta autonomia-erkidego batek betetzen ez baditu** Konstituzioak edo beste lege batzuek ezarritako betebeharrak, **edo** Espainiaren interes orokorrari larri erasotzen dion moduan jokatzeko badu, **Gobernuak, aurrez** autonomia-erkidegoko presidenteari errekerimendua eginik eta, hark aintzat hartu ezean, Senatuaren gehiengo absolutua bildurik, **dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu** erkidegoari betebeharrak horiek nahitaez betearazteko edo aipatutako interes orokorra babesteko.

Si una Comunidad Autónoma no cumpliere las obligaciones que la Constitución u otras leyes le impongan, o actuare de forma que atente gravemente al interés general de España, el Gobierno, previo requerimiento al Presidente de la Comunidad Autónoma y, en el caso de no ser atendido, con la aprobación por mayoría absoluta del Senado, podrá adoptar las medidas necesarias para obligar a aquélla al cumplimiento forzoso de dichas obligaciones o para la protección del mencionado interés general.

- Transposizioaz eta modulazioaz ere baliatu gara, beharrezkotzat jo dugunean: baiezkoak ezezka eman edo alderantziz, erlatiboak bestelako egituraz...

Baiezkoa ezezka

(20.5) **Ezin erabakiko da** argitalpenak, grabazioak edo bestelako informazio-bideak bahitzea, hartarako ebazpen judizialik ezean.

Sólo podrá acordarse el secuestro de publicaciones, grabaciones y otros medios de información en virtud de resolución judicial.

Gaztelaniaz ere ezezka ematen da beste batzuetan:

(117.4). Epaitegi eta auzitegiek **ez dute beste eginkizunik beteko**, aurreko zenbakian adierazitakoak eta, edozein eskubide bermatzeko, legez espresuki ematen zaizkienak **baino**.

Los Juzgados y Tribunales no ejercerán más funciones que las señaladas en el apartado anterior y las que expresamente les sean atribuidas por ley en garantía de cualquier derecho».

Erlatiboak

(3.3) Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori.

La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.

(13.4.) Legeak ezarriko du **nola erabil dezaketen** Espainian asilo-eskubidea beste herrialdeetako herritarrek eta aberriabeek.

La ley establecerá los términos en que los ciudadanos de otros países y los apátridas podrán gozar del derecho de asilo en España.

(31.1) Denek lagunduko dute gastu publikoei aurre egiten, nor bere ekonomia-ahalmenaren arabera, tributu-sistema justu baten bitartez; berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituko da sistema hori, **eta** ezein kasutan ez da iritsiko konfiskatzeraino.

Todos contribuirán al sostenimiento de los gastos públicos de acuerdo con su capacidad económica mediante un sistema tributario justo inspirado en los principios de igualdad y progresividad que, en ningún caso, tendrá alcance confiscatorio.

—Nominalizazio ugari darabil gaztelaniazko testuak, euskarari arrotz zaion moldean, eta aditez edo aditz-izenez itzuli ditugu eskuarki halakoak:

(6) Alderdi politikoek (...), eta funtsezko tresna dira **politikan parte hartze-ko**. Libre da alderdiak **sortzea** eta haiek beren **jarduera izatea**, Konstituzioaren eta legearen errespetuan.

Los partidos políticos (...) y son instrumento fundamental para la participación política. Su creación y el ejercicio de su actividad son libres dentro del respeto a la Constitución y a la ley.

(69.1) **Lurraldeak ordezkatzeko** ganbera da Senatua.

El Senado es la Cámara de representación territorial.

(72.1) Erregelamenduak eta haien erreformak osotasunean **bozkatu behar dira azkenik**, eta gehiengo absolutua beharko da haiek onesteko.

Los Reglamentos y su reforma serán sometidos a una votación final sobre su totalidad, que requerirá la mayoría absoluta.

(81.2) Lege organikoak **onesteko, aldatzeko** edo **derogatzeko**, Kongresuaren gehiengo absolutua behar da, proiektu osoari buruzko azken bozketa batean.

La aprobación, modificación o derogación de las leyes orgánicas exigirá mayoría absoluta del Congreso, en una votación final sobre el conjunto del proyecto.

(94.1) Estatuak **adostasuna emango badu** bere burua tratatu edo hitzarmen bidez lotzeko, **aurrez** Gorte Nagusiek **baimena eman beharko dute**, honako kasu hauetan:

La prestación del consentimiento del Estado para obligarse por medio de tratados o convenios requerirá la previa autorización de las Cortes Generales, en los siguientes casos:

- Hitz ordena estandarrari lotu gatzaizkio, galdegaia aurretik emanaz. Per-paus osagarriak aditzaren ondoren eman ditugu eskuarki. Aditza bera da galdegai, jakina, honelakoetan:

(20.1) **Aitortzen eta babesten dira** honako eskubide hauek:

Se reconocen y protegen los derechos:

(18.3.) **Bermatzen da** komunikazioen isilpekotasuna eta, bereziki, posta, te-legrafo eta telefono bidezkoena, ebazpen judicialik izan ezean.

Se garantiza el secreto de las comunicaciones y, en especial, de las postales, tele-gráficas y telefónicas, salvo resolución judicial.

3. Puntuazioa

- Gaztelaniazko testuak berak sortzen dituen zenbait zalantza gorabehera, ahalik eta zorrotzen puntuatu dugu euskarazkoa. Horretarako, jakina, lege-adituen iritzian oinarritu dugu gure aukera; hortik aurrera, argita-suna izan dugu xede.

(38) Aitortzen da enpresa-askatasuna, merkatu-ekonomiaren esparruan.

Se reconoce la libertad de empresa en el marco de la economía de mercado.

(68.3) Barruti bakoitzean egingo da hautaketa, ordezkaritza proportzionala harturik irizpidetzat.

La elección se verificará en cada circunscripción atendiendo a criterios de representación proporcional.

(151.1) Ez da beharrezko izango bost urteko epea iragaten uztea, 148. artikulua 2. zenbakiak dioen bezala, baldin eta (...)

No será preciso dejar transcurrir el plazo de cinco años, a que se refiere el apartado 2 del artículo 148, cuando (...)

—Sintaxiaren zerbitzuan erabili dugu puntuazioa zenbaitetan. Esate baterako, marrak eta bi puntuak lagungarri izan ditugu honelakoetan:

(8.1) Indar Armatuek —Lurreko Armadak, Itsasoko Armadak eta Aireko Armadak osatuak— eginkizun hauek dituzte: (...)

Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar (...)

(9.3) Konstituzioak bermatzen ditu: legezketasun printzipioa, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, (...)

La Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, (...)

(101.1) Gobernuaren agintaldia amaitzen da: hauteskunde orokorrak izan ondoren; konfiantza parlamentarioa galdu duenean, Konstituzioan aurreikusitako kasuetan; edo presidentearen dimisio edo heriotzagatik.

El Gobierno cesa tras la celebración de elecciones generales, en los casos de pérdida de la confianza parlamentaria previstos en la Constitución, o por dimisión o fallecimiento de su Presidente.

—Ez gara batere uzkur ibili esaldi bat bitan mozteko, hala egokiago datorenean:

(23.1) Herritarrek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko, zuzenean edo ordezkarien bitartez; ordezkariok libreki aukeratuko dira, sufragio unibertsalez, aldian behingo hauteskunderetan.

Los ciudadanos tienen el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes, libremente elegidos en elecciones periódicas por sufragio universal.

4. Lexikoa eta terminologia

Urteotan euskaraz normalizatzeko bidean jarri diren hainbat hitz eta termino ageri dira itzulpen honetan. Horrek ez du esan nahi, ordea, batere jorratu edo eztabaidatu gabe sartu direnik testuan:

- *aitortu* (*eskubideak*)
- *baliatu*, *erabili* (*eskubideak*, *eskumenak*)
- *eskumen* ('*competencia*') eta *jurisdikzio* ('*jurisdicción*')
- *eskuordetu* ('*delegar*'), *eskuordetza* ('*delegación, acción de delegar*')
- *legegintza-ekimena*, *legegintzako herri-ekimena*
- *izapide*, *izapidetu*
- *ahal* ('*poder*'), *ahalorde* ('*poder otorgado*'), *ahalmen* ('*facultad*')
- *ebazpen*, *ebazpen judizial*, *ebazpen irmo*
- *zinpekoen epaimahai* (125)
- *jurisdikziopeko itsaso* (132.2)

Zenbait puntutan, lantaldean zorrotz aztertu eta aukerak haztaturik, apur bat aldendu gara gaur egun zabal dabiltzan aukera batzuetatik:

- *lotura-indar* erabili dugu, eta ez *indar lotesle*
- *aldakizun* izendatu ditugu lege batean aldatzeko edo gehitzeko proposatzen diren testu-zatiak, eta ez *zuzenketa*
- *berdindu* aditza erabili dugu (*kaltea berdindu*, '*reparar el daño*'), nahiz gaur egun *konpondu* dabilen gehien
- *derogatu* aditza erabili dugu, lege-testu batek indarra galtzeko modu zehaztat harturik, eta *indargabetu* orokor gisa utzi
- *tratatatu* izena erabili dugu 'nazioarteko itun' adiera zehatzerako

Aukera horiek, beste guztiak bezala, balio betekoak direlako uste osoan egin ditugu: aurrerago ikusi behar zer harrera duten.

Maileguzko hainbat hitz ageri dira testu honetan normal-normal erabilirik, *Hiztegi Batuan* sarrera izan dutenez gero:

- *nazionalitate* (besterik dira *naziotasun*, '*nazio izate*', eta *herritartasun*, adibidez)
- *instituzio*
- *diskriminazio*
- *zirkulatu*, *zirkulazio*
- *libre* (*libre izan*)
- *autoritate* (ez *agintari* adieran)
- *sufragio*

- *zentsura-mozio*
- *deklaratu* («*salbuespen egoera deklaratu*», adibidez)
- ...

Beste zenbait hitz eta esapide aipagarri:

- *legearen agintea* (*'imperio de la ley'*)
- *entzuera, entzuera eman* (*'audiencia', 'oir en audiencia'*)
- *funtsatu*
- *legearekin ados* (*legearekin bat etorritz, legearen arabera*)
- *-en mende egon* («*kontrol judizialaren mende egon*»), *men egin* («*legeari eta Zuzenbideari osotara men eginik*»), *menderaturik egon* («*legearen agintera baino ez daude menderatuak*»)

Beste inon nekez aurki daitekeen baliabide bat aurkituko du irakurleak testu honetan gaztelaniazko *suspender* hitzaren ordainetan: (*aldi baterako*) *ahalga-betu*. Bide hori hartu dugu, eta besteekin batera azterkizun jarri, eragozpenen bat aurkitu diegulako dabiltzan aukera guztiei: *eten* erabiltzeak aukerarik gabe uzten gaitu terminologikoki berezita dauden *suspender* eta *interrumpir* kontzeptuak bereizteko (bigarren horri egokitzen zaio bete-betean); *bertan behera utzi*, berriz, hitzaren erabilerarik orokorrenetarako bakarrik ikusi da egoki; eta *suspenditu* mailegura jotzeko, azkenik, ez gara ados jarri.

5. Interpretazio-arazoak

Testua egoki itzuliko bada, zalantza sortzen duten puntuetan interpretazioa egin beharra dago, eta lege-adituek esandakoaren argitan egin dugu geurea, jakina. Ikus, esaterako, nola desberdin itzuli den artikulua hau hizkuntza batean eta bestean (gure lanean, hamar bertsiotik gora egin genituen...):

(141.1) La provincia es **una** entidad local con personalidad jurídica propia, determinada **por la** agrupación de municipios y división territorial para el cumplimiento de las actividades del Estado.

(cat) La província és **una** entitat local amb personalitat jurídica pròpia, determinada **per l'**agrupació de municipis i **la** divisió territorial per al compliment de les activitats de l'Estat.

(fr) La province est **une** entité locale ayant une personnalité juridique propre, déterminée par le groupement de communes, **ainsi qu'**une division territoriale en vue de mener à bien les activités de l'Etat.

(gurea)

Probintzia nortasun juridiko propioa duen toki-entitatea da, udalerri multzo batez osatua, eta Estatuaren jarduerak betetzeko lurralde-banaketa.

(lehendik dauden bertsioak)

Probintzia toki erakundea da, eta berezko nortasun juridikoa dauka; udal-elkartzeak eta lurralde-zatiketak mugatzen dute probintzia, estatuaren jarduerak betetzeko.

Probintzia, lege izaera berezkoa duen toki erakundea da, udalerrien elkartzearekin eta lurraldearen banaketarekin sortzen dena, Estatuko eginkizunak betetzeko.

Horra, bada, lan honetan erabilitako zenbait irizpide eta inguruabar. Epaia, nola ez, irakurlearen esku.

Patxi PETRIRENA ALTZUGUREN
Itzultzailea

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA



CONSTITUCIÓN ESPAÑOLA

PREÁMBULO

La Nación española, deseando establecer la justicia, la libertad y la seguridad y promover el bien de cuantos la integran, en uso de su soberanía, proclama su voluntad de:

Garantizar la convivencia democrática dentro de la Constitución y de las leyes conforme a un orden económico y social justo.

Consolidar un Estado de Derecho que asegure el imperio de la ley como expresión de la voluntad popular.

Proteger a todos los españoles y pueblos de España en el ejercicio de los derechos humanos, sus culturas y tradiciones, lenguas e instituciones.

Promover el progreso de la cultura y de la economía para asegurar a todos una digna calidad de vida.

Establecer una sociedad democrática avanzada, y

Colaborar en el fortalecimiento de unas relaciones pacíficas y de eficaz cooperación entre todos los pueblos de la Tierra.

En consecuencia, las Cortes aprueban y el pueblo español ratifica la siguiente CONSTITUCIÓN

TÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1

1. España se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político.

2. La soberanía nacional reside en el pueblo español, del que emanan los poderes del Estado.

3. La forma política del Estado español es la Monarquía parlamentaria.

Artículo 2

La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garanti-

AITZINSOLASA

Espainiako nazioak, justizia, askatasuna eta segurtasuna ezarri nahirik eta bera osatzen duten guztien ona xede harturik, bere subiranotasunaz baliatuz, honako helburu hauek lortzeko borondatea aldarrikatzen du:

Bizikidetzaren demokratikoa bermatzea, Konstituzioaren eta legeen baitan, ordena ekonomiko eta sozial justu baten arabera.

Zuzenbide-estatu bat sendotzea, legearen agintea segurtatuko duena, herriaren borondatearen adierazpen den aldetik.

Babesa ematea espainiar guztiei eta Espainiako herri guztiei, hala giza eskubideen arloan nola beren kultura eta tradizio, hizkuntza eta instituzioengan.

Kulturaren eta ekonomiaren aurrerabidea bultzatzea, guztiei bizi-kalitate duina segurtatzearen.

Gizarte demokratiko aurreratu bat eratzea, eta

Lurreko herri guztien arteko harreman baketsu eta lankidetzaren emankorrekotasunak sendotzen laguntzea.

Hala, bada, Gorteek onesten dute, eta Espainiako herriak berresten, KONSTITUZIO hau.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua

1. Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.

2. Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio Estatuari botereak.

3. Espainiako estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa da.

2. artikulua

Konstituzioak Espainiako nazioaren batasun ezin hautsizkoan hartzen du oinarri, hura izanik espainiar guztien aberri erkide eta banaezina, eta era berean

za el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas.

Artículo 3

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.

2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.

3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.

Artículo 4

1. La bandera de España está formada por tres franjas horizontales, roja, amarilla y roja, siendo la amarilla de doble anchura que cada una de las rojas.

2. Los Estatutos podrán reconocer banderas y enseñas propias de las Comunidades Autónomas. Estas se utilizarán junto a la bandera de España en sus edificios públicos y en sus actos oficiales.

Artículo 5

La capital del Estado es la villa de Madrid.

Artículo 6

Los partidos políticos expresan el pluralismo político, concurren a la formación y manifestación de la voluntad popular y son instrumento fundamental para la participación política. Su creación y el ejercicio de su actividad son libres dentro del respeto a la Constitución y a la ley. Su estructura interna y funcionamiento deberán ser democráticos.

Artículo 7

Los sindicatos de trabajadores y las asociaciones empresariales contribuyen a la defensa y promoción de los intereses económicos y sociales que les son propios. Su creación y el ejercicio de su actividad son libres dentro del respeto a la

aitortzen eta bermatzen du Espainia osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia-eskubidea eta haien arteko elkartasuna.

3. artikulua

1. Gaztelania da Estatuaren espainiar hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.

2. Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira, beren autonomia-erkidegoetan, haien estatutuekin ados.

3. Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori.

4. artikulua

1. Espainiako bandera hiru zerrenda horizontalez osatua da: gorria, horia eta gorria. Horiaren zabalera gorri bakoitzarena halako bi da.

2. Estatutuek esku izango dute autonomia-erkidegoen bandera eta ikur propioak aintzatesteke. Espainiako banderarekin batera erabiliko dira erkidegoen eraikin publikoetan eta haien ekitaldi ofizialetan.

5. artikulua

Espainiako estatuaren hiriburua Madril da.

6. artikulua

Alderdi politikoek pluralismo politikoa adierazten dute; herriaren borondatea eratzen eta agertzen laguntzen dute, eta funtsezko tresna dira politikan parte hartzeko. Libre da alderdiak sortzea eta haiek beren jarduera izatea, Konstituzioaren eta legearen errespetuan. Demokratikoak izan beharko dute barneegituraz eta jokamoldez.

7. artikulua

Langile-sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak lagungarri dira dagozkien interes ekonomiko eta sozialak babesteko eta sustatzeko. Libre da halako erakundeak sortzea eta guztiek ere beren jarduera izatea, Konstituzioaren eta le-

Constitución y a la ley. Su estructura interna y funcionamiento deberán ser democráticos.

Artículo 8

1. Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional.

2. Una ley orgánica regulará las bases de la organización militar conforme a los principios de la presente Constitución.

Artículo 9

1. Los ciudadanos y los poderes públicos están sujetos a la Constitución y al resto del ordenamiento jurídico.

2. Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas; remover los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social.

3. La Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, la irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales, la seguridad jurídica, la responsabilidad y la interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos.

TÍTULO I

DE LOS DERECHOS Y DEBERES FUNDAMENTALES

Artículo 10

1. La dignidad de la persona, los derechos inviolables que le son inherentes, el libre desarrollo de la personalidad, el respeto a la ley y a los derechos de los demás son fundamento del orden político y de la paz social.

gearen errespetuan. Demokratikoak izan beharko dute barne-egituraz eta jokamoldez.

8. artikulua

1. Indar Armatuek —Lurreko Armadak, Itsasoko Armadak eta Aireko Armadak osatuak— eginkizun hauek dituzte: Espainiaren subiranotasuna eta independentzia bermatzea, eta lurralde-osotasuna eta Konstituzioaren arabera ordenamendua zaintzea.

2. Lege organiko batek arautuko ditu antolamendu militarren oinarriak, Konstituzio honen printzipioen arabera.

9. artikulua

1. Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende daude.

2. Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.

3. Konstituzioak bermatzen ditu: legezketasun printzipioa, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa eta botere publikoen erantzukizuna eta arbitrariotasun-debekua.

I. TITULUA

OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua

1. Pertsonaren duintasuna, pertsonari berez dagozkion eskubide bortxaezinenak, nortasunaren garapen librea, legearen errespetua eta besteen eskubideen errespetua oinarri dituzte ordena politikoak eta gizarteko bakeak.

2. Las normas relativas a los derechos fundamentales y a las libertades que la Constitución reconoce se interpretarán de conformidad con la Declaración Universal de Derechos Humanos y los tratados y acuerdos internacionales sobre las mismas materias ratificados por España.

CAPÍTULO PRIMERO

De los españoles y los extranjeros

Artículo 11

1. La nacionalidad española se adquiere, se conserva y se pierde de acuerdo con lo establecido por la ley.

2. Ningún español de origen podrá ser privado de su nacionalidad.

3. El Estado podrá concertar tratados de doble nacionalidad con los países iberoamericanos o con aquellos que hayan tenido o tengan una particular vinculación con España. En estos mismos países, aun cuando no reconozcan a sus ciudadanos un derecho recíproco, podrán naturalizarse los españoles sin perder su nacionalidad de origen.

Artículo 12

Los españoles son mayores de edad a los dieciocho años.

Artículo 13

1. Los extranjeros gozarán en España de las libertades públicas que garantiza el presente Título en los términos que establezcan los tratados y la ley.

2. Solamente los españoles serán titulares de los derechos reconocidos en el artículo 23, salvo lo que, atendiendo a criterios de reciprocidad, pueda establecerse por tratado o ley para el derecho de sufragio activo y pasivo en las elecciones municipales.

3. La extradición sólo se concederá en cumplimiento de un tratado o de la ley, atendiendo al principio de reciprocidad. Quedan excluidos de la extradición los delitos políticos, no considerándose como tales los actos de terrorismo.

4. La ley establecerá los términos en que los ciudadanos de otros países y los apátridas podrán gozar del derecho de asilo en España.

2. Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari eta gai horietan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei begiratuko zaie.

LEHEN KAPITULUA

Espainiarrak eta atzerritarrak

11. artikulua

1. Espainiar nazionalitatea eskuratu, gorde eta galdu, legeak dioenarekin ados egiten da.

2. Jatorriz espainiarra den inori ezin kenduko zaio nazionalitatea.

3. Estatuak nazionalitate bikoitzerako tratatuak adostu ditzake Iberoamerikako herrialdeekin nahiz Espainiarekiko lotura berezia izan dutenekin edo dutenekin. Herrialde horietan, jatorrizko nazionalitatea galdu gabe bertakotu daitezke espainiarrak, nahiz herrialdeok ez aitortu ordaineko eskubidea hango herritarrei.

12. artikulua

Hemezortzi urterekin dira espainiarrak adindun.

13. artikulua

1. Atzerritarrei badagozkie Espainian Titulu honetan bermatzen diren askatasun publikoak, tratatuek eta legeak ezarritakoaren arabera.

2. Espainiarrak bakarrik izango dira 23. artikuluan aitortutako eskubideen titular, non eta tratatuz edo legez ez den besterik agintzen, elkarrekikotasun irizpideei jarraikiz, udal-hauteskundeetako sufragio aktibo eta pasiborako eskubideari buruz.

3. Tratatu bat edo legea betez soilik emango da estradizioa, elkarrekikotasun printzipioari jarraikiz. Estradiziotik kanpo gelditzen dira delitu politikoak; ez dira halakotzat hartzen terrorismo-ekintzak.

4. Legeak ezarriko du nola erabil dezaketen Espainian asilo-eskubidea beste herrialdeetako herritarrek eta aberrigabeek.

CAPÍTULO SEGUNDO

Derechos y libertades

Artículo 14

Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

SECCIÓN PRIMERA

De los derechos fundamentales y de las libertades públicas

Artículo 15

Todos tienen derecho a la vida y a la integridad física y moral, sin que, en ningún caso, puedan ser sometidos a tortura ni a penas o tratos inhumanos o degradantes. Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra.

Artículo 16

1. Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley.

2. Nadie podrá ser obligado a declarar sobre su ideología, religión o creencias.

3. Ninguna confesión tendrá carácter estatal. Los poderes públicos tendrán en cuenta las creencias religiosas de la sociedad española y mantendrán las consiguientes relaciones de cooperación con la Iglesia Católica y las demás confesiones.

Artículo 17

1. Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley.

2. La detención preventiva no podrá durar más del tiempo estrictamente necesario para la realización de las averiguaciones tendentes al esclarecimiento de los hechos, y, en todo caso, en el plazo máximo de setenta y dos horas, el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial.

BIGARREN KAPITULUA

Eskubideak eta askatasunak

14. artikulua

Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

LEHEN ATALA

Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak

15. artikulua

Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezein kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo trataturik. Ezeztatzen da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako.

16. artikulua

1. Bermatzen da gizabanakoen eta komunitateen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna; muga bakarra, haien agerbideetan, lege babestutako ordena publikoa gordetzeak eskatzen duena izango da.

2. Inor ezin behartuko da bere ideologiari, erlijioari edo sinesmenei buruz deklaratzera.

3. Estatuak ez du bere egingo ezein erlijio. Botere publikoek kontuan hartuko dituzte Espainiako gizartearen erlijio-sinesmenak, eta araberrako lankidetzaharremanak izango dituzte Eliza Katolikoarekin eta gainerako erlijioekin.

17. artikulua

1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin kendu zaio askatasuna, ez bada artikuluko honek dioena betez eta legean ageri diren kasuetan eta moduan.

2. Prebentziozko atxilotetak ezin iraungo du gertaerak argitzeko ikerketek behar duten denbora doia baino; betiere, gehienez hirurogeita hamabi orduko epean, aske edo aginte judizialaren esku utzi beharko da atxilotua.

3. Toda persona detenida debe ser informada de forma inmediata, y de modo que le sea comprensible, de sus derechos y de las razones de su detención, no pudiendo ser obligada a declarar. Se garantiza la asistencia de abogado al detenido en las diligencias policiales y judiciales, en los términos que la ley establezca.

4. La ley regulará un procedimiento de «habeas corpus» para producir la inmediata puesta a disposición judicial de toda persona detenida ilegalmente. Asimismo, por ley se determinará el plazo máximo de duración de la prisión provisional.

Artículo 18

1. Se garantiza el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.

2. El domicilio es inviolable. Ninguna entrada o registro podrá hacerse en él sin consentimiento del titular o resolución judicial, salvo en caso de flagrante delito.

3. Se garantiza el secreto de las comunicaciones y, en especial, de las postales, telegráficas y telefónicas, salvo resolución judicial.

4. La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos.

Artículo 19

Los españoles tienen derecho a elegir libremente su residencia y a circular por el territorio nacional.

Asimismo, tienen derecho a entrar y salir libremente de España en los términos que la ley establezca. Este derecho no podrá ser limitado por motivos políticos o ideológicos.

Artículo 20

1. Se reconocen y protegen los derechos:

a) A expresar y difundir libremente los pensamientos, ideas y opiniones mediante la palabra, el escrito o cualquier otro medio de reproducción.

b) A la producción y creación literaria, artística, científica y técnica.

c) A la libertad de cátedra.

3. Atxiloturik dagoen pertsona orori berehala jakinarazi beharko zaio, berak ulertzeko moduan, zer eskubide dituen eta zein diren atxilotzeko arrazoiak, eta ezin behartuko da deklaratzera. Bermatzen da atxilotuak abokatuaren laguntza izango duela poliziarekiko egitekoetan eta egiteko judizialean, legeak ezarritako moduan.

4. Legeak «habeas corpus» prozedura bat arautuko du, berehala jartzeko epailearen esku legearen kontra atxilotutako pertsona oro. Legeak ezarriko du, orobat, behin-behineko espetxealdiak gehienez zenbat iraungo duen.

18. artikulua

1. Bermatzen da ohorerako eskubidea, norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea.

2. Bizilekua bortxaezina da. Ez dago hartan sartzetik edo erregistrorik egiterik titularraren baimenik edo ebazpen judizialik gabe, ageri-ageriko delitua-
ren kasuan salbu.

3. Bermatzen da komunikazioen isilpekotasuna eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoena, ebazpen judizialik izan ezean.

4. Legeak mugatuko du informatikaren erabilera, eta hala herritarrei bermatuko beren ohorea, norberaren nahiz familiaren intimitatea eta eskubideen baliatze bete.

19. artikulua

Espainiarrek eskubidea dute bizitokia libreki aukeratzeko eta nazio-lurraldean zirkulatze.

Halaber, eskubidea dute libreki Espainian sartzeko nahiz irteteko, legeak ezarritako moduan. Eskubide hori ezin murriztuko da arrazoi politiko edo ideologikoengatik.

20. artikulua

1. Aitortzen eta babesten dira honako eskubide hauek:

a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak libreki adieraztea eta zabaltzea, hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidez.

b) Literatura, artea, zientzia eta teknika ekoiztea eta sortzea.

c) Katedra-askatasuna.

d) A comunicar o recibir libremente información veraz por cualquier medio de difusión. La ley regulará el derecho a la cláusula de conciencia y al secreto profesional en el ejercicio de estas libertades.

2. El ejercicio de estos derechos no puede restringirse mediante ningún tipo de censura previa.

3. La ley regulará la organización y el control parlamentario de los medios de comunicación social dependientes del Estado o de cualquier ente público y garantizará el acceso a dichos medios de los grupos sociales y políticos significativos, respetando el pluralismo de la sociedad y de las diversas lenguas de España.

4. Estas libertades tienen su límite en el respeto a los derechos reconocidos en este Título, en los preceptos de las leyes que lo desarrollen y, especialmente, en el derecho al honor, a la intimidad, a la propia imagen y a la protección de la juventud y de la infancia.

5. Sólo podrá acordarse el secuestro de publicaciones, grabaciones y otros medios de información en virtud de resolución judicial.

Artículo 21

1. Se reconoce el derecho de reunión pacífica y sin armas. El ejercicio de este derecho no necesitará autorización previa.

2. En los casos de reuniones en lugares de tránsito público y manifestaciones se dará comunicación previa a la autoridad, que sólo podrá prohibirlas cuando existan razones fundadas de alteración del orden público, con peligro para personas o bienes.

Artículo 22

1. Se reconoce el derecho de asociación.

2. Las asociaciones que persigan fines o utilicen medios tipificados como delito son ilegales.

3. Las asociaciones constituidas al amparo de este artículo deberán inscribirse en un registro a los solos efectos de publicidad.

4. Las asociaciones sólo podrán ser disueltas o suspendidas en sus actividades en virtud de resolución judicial motivada.

5. Se prohíben las asociaciones secretas y las de carácter paramilitar.

d) Edozein hedabidetatik informazio egiazkoa libreki komunikatzea edo jasotzea. Legeak arautuko du askatasun horiek erabiltzean kontzientzia-klausula eta sekretu profesionala izateko eskubidea.

2. Eskubide horien erabilera ezin murriztu da inolako aurre-zentsuraren bidez.

3. Estatuaren edo zeinahi erakunde publikoren mende dauden hedabideen kasuan, legeak arautuko du haien antolamendua eta dagokien parlamentu-kontrola, eta orobat berrmatuko du komunikabide horietara irispidea izango dutela talde sozial eta politikotik esanguratsuek, betiere gizartearen eta Espainiako hizkuntzen aniztasuna errespetatuz.

4. Askatasun horien mugak honako hauek dira: Titulu honetan aitortutako eskubideen errespetua; Titulu hau garatuko duten legeek diotena, eta, batez ere, ohorerako eskubidea, intimitaterako eskubidea, norberaren irudirako eskubidea eta gazteen eta haurren babes-eskubidea.

5. Ezin erabakiko da argitalpenak, grabazioak edo bestelako informazio-bideak bahitzea, hartarako ebazpen judizialik ezean.

21. artikulua

1. Aitortzen da bakean eta armarik gabe biltzeko eskubidea. Eskubide hori erabiltzeko, ez da behar aurretiazko baimenik.

2. Jendea ibiltzeko tokietan egiteko diren bileren nahiz manifestazioen kasuan, aurretiaz jakinaraziko zaio aginpidea duenari, eta hark ezin debekatuko ditu, non eta ez dagoen arrazoi funtsaturik uste izateko ordena publikoa nahasiko dela eta pertsonentzat edo ondasunentzat arriskua izango dela.

22. artikulua

1. Aitortzen da elkartze-eskubidea.

2. Legearen kontrakoak dira delituztat tipifikatutako helburuak dituzten edo halako bitartekoak erabiltzen dituzten elkarteak.

3. Artikulu honen babesean eratutako elkarteek izena eman behar dute erregistro batean, publiko egiteko xede hutsarekin.

4. Ezin desegingo da elkarterik, edo ezein elkarteren jarduera geldiarazi, ez bada ebazpen judizial arrazoitu baten bidez.

5. Debeku dira isilpeko elkarteak eta izaera paramilitarrekoak.

Artículo 23

1. Los ciudadanos tienen el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes, libremente elegidos en elecciones periódicas por sufragio universal.

2. Asimismo, tienen derecho a acceder en condiciones de igualdad a las funciones y cargos públicos, con los requisitos que señalen las leyes.

Artículo 24

1. Todas las personas tienen derecho a obtener la tutela efectiva de los jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intereses legítimos, sin que, en ningún caso, pueda producirse indefensión.

2. Asimismo, todos tienen derecho al Juez ordinario predeterminado por la ley, a la defensa y a la asistencia de letrado, a ser informados de la acusación formulada contra ellos, a un proceso público sin dilaciones indebidas y con todas las garantías, a utilizar los medios de prueba pertinentes para su defensa, a no declarar contra sí mismos, a no confesarse culpables y a la presunción de inocencia.

La ley regulará los casos en que, por razón de parentesco o de secreto profesional, no se estará obligado a declarar sobre hechos presuntamente delictivos.

Artículo 25

1. Nadie puede ser condenado o sancionado por acciones u omisiones que en el momento de producirse no constituyan delito, falta o infracción administrativa, según la legislación vigente en aquel momento.

2. Las penas privativas de libertad y las medidas de seguridad estarán orientadas hacia la reeducación y reinserción social y no podrán consistir en trabajos forzados. El condenado a pena de prisión que estuviere cumpliendo la misma gozará de los derechos fundamentales de este Capítulo, a excepción de los que se vean expresamente limitados por el contenido del fallo condenatorio, el sentido de la pena y la ley penitenciaria. En todo caso, tendrá derecho a un trabajo remunerado y a los beneficios correspondientes de la Seguridad Social, así como al acceso a la cultura y al desarrollo integral de su personalidad.

3. La Administración civil no podrá imponer sanciones que, directa o subsidiariamente, impliquen privación de libertad.

23. artikulua

1. Herritarrek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko, zuzenean edo ordezkarien bitartez; ordezkariok libreki aukeratuko dira, sufragio unibertsalez, aldian behingo hauteskundeetan.

2. Era berean, eskubidea dute funtzio eta kargu publikoetara berdintasunean iristeko, legeek ezarritako betekizunekin.

